

ZINEMA. Hilaren 25ean hasi eta 30a bitartean, ekitaldiak sei guneren artean banatuko du bere programazioa

Estibalitz Ezkerra | **BILBO**

Rachel Welchen irribarre nera-beak Oliver Hardyren karkara builatsuari pasatu dio lekukoa. Irudia ZINEBIk komunikatu nahi duenarekin bat datorrela dio haren zuzendari Ernesto del Riok. «Ikuslearen begiradarekin geratuko zen irudia, hura ikusi eta jendea zinemara bultzatuko zuen imajina lortu nahi genuen». Urtetik urtera Zinema Dokumental eta Laburraren Bilboko jaialdira aurkezten diren lanen kopuruak gora egiten duela jakinda, normala hain aurpegi zorionsua aukeratzea. «Marka guztiak hausteko bidean gaude. Aurten 61 herrialde-tik igorritako 1.092 film jaso ditugu, iaz baino 11 gehiago». Haietatik 17 Euskal Herrian eginda daude. Baina guztiek ez dute lehiaketa nagusian parte hartzeko aukera izango: 107 lanek bakarrik edukiko dute ohore hori. Genero aldetik, hautaturikoen artean 73 film fikziozkoak dira, 16 dokumentalak eta 18 animaziozkoak. Herrialdeei dagokienez, aniztasuna da nagusi: Europakoak dira gehientsuenak —Euskal Herriaren izenean zazpi film lehiatuko dira—, baina Afrika salbu gainerako kontinente guztiak nola edo hala ordezkaturik egongo dira.

Aurtengo epaimahaia Javier Agirre eta Milagros Ollano zuzendariak, Pavel Pawlikowski dokumentalgileak eta Olivier Pievre Marsellako museoko zinemateka arduradunak osatuko dute. Bosgarren aulkia beteko duen pertsonaren izena hurrengo egunetan jakinaraziko dute. ZINEBIk ohiko sariak banatuko ditu, alegia, Jaialdiaren Sari Nagusia, Euskal Zinemaren Sari Nagusia, Espainiar Zinemaren Sari Nagusia, Urrezko Mikeldia —hiru kategoriatan banaturik dago: animazioa, fik-



MONIKA DEL VALLE / ARGAZKI PRESS

Ernesto del Rio ZINEBIko zuzendaria eta Jose Luis Sabas Bilboko kultur zinegotzia, aurkezpenean.

Jendearen begi ninian geratuko den zinema

Zinema Dokumental eta Laburraren Bilboko jaialdia parte-hartze handiarekin eta egitarau oparo batekin dator aurten

zioa eta dokumentala—, Zilarrezko Mikeldia —aipatu hiru kategoriek—, eta Hegoamerikako Film Onenaren saria. Horiez gain, beste hiru aipamen egongo dira: ikusleek emandakoa bata, eta euskal bi gidoirik onenei zuzendurik besteak.

Ikusle guztien neurriko jaialdia

Film eta dokumental laburren lehiaketak arreata berezia merezi badu ere, ZINEBI sariketa hu-

tsa baino gehiago da. Azken urteetan batez ere, antolatzaileek ahalik eta publiko zabalena erakartzeko moduko jaialdia eginen saiatu dira. Programa bost guneren artean garatzen da: Arriaga antzokiaren, Multicines-8 aretoen, Bilborocken eta Guggenheim eta Arte Eder museoaren artean. Ohi bezala, Arriaga Sail Ofizialeko emaldiak jasoko ditu. Ez da hori, baina, edukiko duen betebeharrak.

Batetik, gizarte gatazkak hizpide izango dituzten emaldi berezien lekuko izango da gauero. Horien barruan Argentinako diktaduran desagerturikoei buruzko *Sol de noche* edo Kubatik AEBetara doazen etorkinen inguruko *Balseros* ikusteko aukera egongo da. Bestetik, Javier Agirre zuzendari eta aurtengo epaimahaikideari zuzenduriko atzerabegirakoa eta umeak ikus-entzunezko bitartekoekin trebatzeko asmoz antolaturiko *Eskolatik zinemara eta zinematik eskolara* zikloa izango dira. Azkenik, eta amaiera ekitaldiaren aurretik, Karmelo Bernaolari zuzenduriko omenaldi kontzertuaren lekuko izango da Arriaga. Bertan, Bilboko Orkes-

ERNESTO DEL RIO

ZINEBIko zuzendaria

«Marka guztiak hausteko bidean gaude. Aurten 61 herrialde-tik igorritako 1.092 film jaso ditugu»

tra Sinfonikoak konpositoreak zinemarentzat eginiko 80 musikei errepaso egingo die.

Bien bitartean, Multi aretoak barneko eta kanpoko produkzioaren leiho bihurtuko dira. Alde batetik, Txina, Japonia, Mexiko eta Kubako zinemagintzak aztertuko dituzten *Txina mugitzen ari da*, *Japoniaren irudi berriak*, *Mexikoren oroimena* eta *San Antonioko zinema eta telebista eskola* zikloak ikusteko aukera egongo da. Bestetik, iaz bezala, *Info Euskadi/Info Spain* atalak sail ofizialaren barruan tokirik izan ez duten ekoizpenak hartuko ditu. Arte Eder museoak, berriz, emakumeek egindako zinema bilduko du *Women make movies*-en barruan. Zikloa atontzeko aurten 30 urte bete dituen New Yorkeko banatzaile baten laguntza izan du ZINEBIk. Museo horretan bertan, fikzioaren eta dokumentalen bitartez gizarte gatazkek komunikabideetan duten oihartzuna azaltzen duen *Hondamendia eta ikuskizuna* jasoko du. Programak lau atal ditu, eta Alemaniako zuzendari batekin egin du gaiarekin lotura duten lanen aukeraketa.

Dokumentalgintzan une honetan Euskal Herrian egiten ari dena islatzen duen *Euskadidok* edo Pavel Pawlikowski epaimahaikideari buruzko atzerabegirakoa dira Arte Eder museoak eskainiko dituen beste zikloetako batzuk. Bestalde, Bilborock aretoa *Bideo musikaren kultura* saioaren lekuko bihurtuko da. Bertan, zuzendari ezagunek musikariekin eginko bideoak eskainiko dituzte.

ZINEBIk hilaren 25ean zabalduko ditu ateak, eta 30a arte egongo da haren eskaintzez gozatzeko aukera.

GUGGENHEIMEKO ZIKLOAK

Handietan handienak

Zuzendari handien *tenplu* izatea egokitu zaio aurten Guggenheim museoari. Batetik, pinakotekak Roberto Rossellini zuzenduriko zikloa jasoko du. *Roberto Rossellini telebista asmatzen du* lelopean, orain 25 urte zendu zen egileak telebista hezkuntzaren bitarteko bilakatzeko egindako ahaleginak aztertuko dituzte. Besteak beste, *Cartesius*, *Blaise Pascal*, *Beabourg* edo *Rogopag* lanak ikusteko parada egongo da. Zikloa Rosselliniren seme Renzok aurkeztuko du. Renzo Rossellini aitaren produktore laguntzailea izan zen hura hil zen arte. «Rossellini telebista lanen giltzarri izan zen bere garaian», dio ZINEBIko zuzendari Ernesto del Riok. «Gaur egun erabat ahazturik dugun telebista ereduaren adibide zen bera, hau da, heziketa beste xer-

derik ez duen telebista ereduaren adibidea. Bizi garen garaiotan inoiz baino gehiago, horrelakoak ahanzturatik berreskuratzea merezi duela eta Rosselliniri gure omenalditxoak egin nahi izan diogu».

Zazpigarren arteko maisu handiekin jarraituz, Guggenheimek *Egile filmak*, *egileei buruzko filmak* programa eskainiko du. Bertan, zinemagile ezagunei buruzko filmak eta zuzendari ospetsuek eginikoak egongo dira ikusgai: besteak beste, Ettore Scolaren *Portoalegre* —Brasilgo izen bereko hirian antolaturiko globalizazioaren kontrako goi bileraren berri ematen duena—, Mika Kaurismakiren *Vivo en Brasil*, Korea, Txina eta Japoniako hiru egile gaztek zuzenduriko *After the war* —II. Mundu Gerrari buruzko gogoeta—, Eryc Rochak Glauber aitari buruz eginiko *Rocha que vuela* edo Mario Peixotoren *Donde la tierra termina*.



mikel
urdangarin

arriaga
antzokia

BIHAR

20:00

